

2006ko urriaren 31ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1. - 2.006KO URRIAREN 10EKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
2. - ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
3. -ZENBAIT OBREN AZTERKETA ETA ADJUDIKAZIOA
4. - LARDI AUZOKO ZOLAKETA PROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA
5. -ORDENADOREEN EROSKETARAKO AZTERKETA ETA BERE KASUAN ADJUDIKAZIOA.
6. -2006KO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA
7. - ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA
8. - ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
9. - ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA
10. -ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
11. -GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko urriak 27.

ALKATEA

2006KO URRIAK 31

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Miren Aburuza Alkorta.

Javier Zabala Zabala.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Bertaratu ez direnak:

Antton Artola Ibarguren

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko urriaren hogeita hamaika, hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udabatzak bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO URRIAK 10eko AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko Urriaren 10eko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA: ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinarazten du:

1.- ARAGI BULEGOAL S.L.-k eskatutako HIB 1.4 unitatean eraikina egiteko eskatutako baimena ez da onartzen proiektuak aldaketak behar dituelako onartua izateko (199/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Mikel Sarasola Jaunari Bide Ondo etxeko ikuiluan 60m²-tan hormigoia botatzeko obra baimena ematen zaio(200/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- REFAKTARIOS KELSEN S.A enpresari fokuak legeztatzeko eskaturiko sei hilabeteko luzapena onartzen zaio(201/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- 10.972,38€ kantitateko 2006ko 3.lauhilabeteko Ur horniduraren Tasaren errolda onartzen da (202/2006 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA: ZENBAIT OBREN AZTERKETA ETA ADJUDIKAZIOA

Udalbatzak, aho-batez, Euskal Herriko lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006ko legeak xedatutakoaren arabera Adunako H.I.B 1.4. Unitateko Borondatezko Birpartzelazio proiektua behin betiko onesten du.

Dena den, sinatzeko dokumentuak bi eraikinen arteko 5 metrotako pasaera agertu beharko du, Adunako laguntzazko Arauak aurreikusten duen bezala.

LAUGARREN PUNTUA: 1.8 UNITATEAN EGIN BEHARREKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN ADJUDIKAZIOA, BIDEZKOA BADA.

Ikusirik Soroa Arquitectos, S.L.-k aurkeztutako 1.8 unitatean egin beharreko etxebizitzaren urbanizazio proiektuaren lan proposamena.

Ikusirik aurkeztutako ordain-sariaren aurrekontua: exekuzio materialaren (309.266€) %4,90 eta ateratzen den kopuruari %20ren deskontua eta B.E.Z-a gehituz ateratzen den kantitatea.

Ikusirik Udal Idazkariak egindako txostena.

Adunako Udalak, aho batez, 1.8 unitatean egin beharreko urbanizazio proiektuaren adjudikazioa Soroa Arquitectos, S.L-ri esleitzea erabakitzen du aurkezturiko proposamenaren arabera.

Ordainketan aurrekontuko 1.0000.601.511.00.03kontusailaren kargu egingo da.

**BOSTGARREN PUNTUA:
LARDI AUZOKO ZOLAKETA PROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA ETA ERANTZUNA**

“Adunako Lardi auzoa zolatzeko proiektuari” 2006ko irailaren 12an eman zitzaion hasierako onespena. Gero, jendaurrean ikusgai jarri zen eta, arauzko epearen barruan, 2006ko urriaren 6an, alegazio bat aurkeztu zuen **JESUS MARIA GOROSTIDI ASTIGARRAGA** jaunak.

Alegazioaren edukia:

- 1.- Lardi auzoa zolatzeko proiektua deuseza da.
- 2.- Zolatzeko proiektua ez da arrazoi nahikoa desjabetzapen espedienteari ekiteko.
- 3.- Desadostasuna, proiektuak ukituko duen metro kopuruarekiko.

Alegazioari dagokion erantzuna:

1.- Lardi auzoa zolatzeko proiektua deuseza da.

Adunako lurzoru hiritarrezinari dagokionez, Hiri Antolaketako Arauen aldaketarako dokumentuak 41. artikuluan aurreikusten du “zona osorako hiritartze proiektu bakar bat, zerbitzuen azpiegiturak arrazionalizatuko dituen proiektu bakarra, erredaktatzeko premia, multzo osorako irizpideak bateratuz”.

Hori horrela, Lardi auzoari dagozkion planoek hiritartze eskema bat jasotzen dute, jarduketa esparrua mugatuz.

Horrela bada, plangintza orokorreko hirigintza-tresna horrek berak aurreikusten du Lardi auzoa hiritartzea; beraz, obren proiektuan aurreikusitako jarduketak legezkoak dira, Hiri Antolaketako

Arauek aurreikusitako esparrua errespetatzen baitute. Gainera, egin beharreko obra guztiak xehetasun osoz adierazten ditu, asfaltatze lanak eta gaur egun eskasak diren zerbitzuak hobetzea, batez ere. Proiektuak, edozein kasutan ere, lehendik dauden mugak eta lerrokadurak erregularizatzen ditu.

Hori horrela, Lardi auzoa zolatzeko obren proiektuak egiten duen bakarra da indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauek aurreikusitakoa garatzea, proiektu honek ez baitu aurreikusten plangintza orokorreko dokumentuan benetan jasotako jarduketez apartekorik.

Bestetik, alegazio-jartzaileak aipatzen duen 5/1998 Legeko,(lur erregimeneko gaietan hartu beharreko premiazko neurriei buruzkoa)1-3 d) artikuluan ezarritakoari dagokionez, argitu behar dugu artikuluko hori, lurzoru hiritarrezinean kokaturiko landagune kalifikazioa duten eremuentzan izango zela aplikagarri , baina aztergai dugun auzoari ez dagokio kategoriatan hori. Hain zuzen ere, Hirigintza Araudiko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lardi auzoa zona orokorrean dago.

Ondorioz, izatekotan ere, aipatu auzoari zona orokorrerako aurreikusitakoa aplikatu daioke, artikuluko horrek berak 2. atalean ezarritakoa; eta hor ez dago landagune gisa hartzen diren zonetarako aurreikusitako mugarik.

Gainera, Lardi auzoa landagune gisa hartuta ere, aurreikusi diren jarduketek ez lukete urratuko aipatu 1-3 d) artikuluan aurreikusitakoa, hau da, ekipamendu berririk edota espazio libre nahiz herribide berririk ezin izango dela mugatu, alegia; izan ere, plangintza orokorreko tresnan aurreikusitako obrez gain, eremua zolatzeko eta lehendik dauden zerbitzuak hobetzea bakarra baita proiektu honetan aurreikusitako obren xedea. Orain dagoenarekin alderatuta egingo den berrikuntza bakarra da bidearen oraingo trazadura hobetzea eta aparkalekurako eremua mugatzea; eta hori, oraingo mugak eta lerrokadurak erregularizatzearen parekotzat har daiteke.

Bestetik, kontuan hartuta zolatzeko obren proiektuak hasierako onespina jaso duela dagoeneko eta behin betiko onespina, berriz, EAEko Lur Lege berria indarrean jarri ondoren etorriko dela, aipatu araudi berri horretan aurreikusitakoa aplikatu daiteke orain planteatu diren jarduketak hauek.

Legezko testu berri horrek, azken batean (alegazioa bultzatu duen gaiari dagokionez) gorago aipatu dugun 5/1998 Legeak 1. artikuluan ezarritakoa berresten du. Hala ere, 28. artikuluko 5. atalean, lurzoru hiritarrezinean gauzatu daitezkeen jarduketaren kontzeptua zehazten du. Eta, horren arabera, herri administrazioek erabilera eta zerbitzuen plangintzan aurreikusitako obrak burutu ditzakete, proiektuko bide eta kaleak bezalaxe; baita zerbitzu horiek gauzatzeko eta artatzeko azpiegiturak edo sareak ere, baldin eta plangintzan ezarritakoari lotzen bazaizkio.

Gauzak horrela, aplikagarri den legeria berriaren ikuspegitik begiratuta, are garbiago geratzen da Lardi auzoko obrei ekiteko ahalmena.

Ondorioz, ezetsi egin behar dugu interesdunak zentzu honetan jarritako alegazioa.

2.- Zolatzeko proiektua ez da arrazoi nahikoa desjabetzpen espedienteari ekiteko.

Hasierako onespina jaso duen proiektuak obren gauzapena garatzen du, eta horrek, titularitate pribatuko zenbait ondasun afektatzen ditu, auzo honetan dauden jabari publikoko lursailen mugak eta sestrak erregularizatzearen ondorioz afektatu beharrekoak, hain zuzen. Hori horrela, obren proiektu hau egin arte ezin aurreikusi izan diren baina herriaren intereserako egin beharko diren desjabetzpenak aurreikusi beharra etorri da.

Bestetik, obren proiektua Hiri Antolaketako Arauetan lurzoru hiritarrezinari buruz ezarritakoan oinarritu da. Eta Arau horiek onetsi zirenean ere aurreikusi zen Lardi auzoa hiritartzeko premia.

3.- Desadostasuna, proiektuak ukituko duen metro kopuruarekiko.

Desjabetu beharreko azalerak eta mugak, desjabetzpenak ukituko dituen ondasun eta eskubideen zerranda egiterakoan finkatuko dira, zehatz-mehatz. Beraz, interesdunak orduan izango du bidezko alegazioak jartzeko aukera.

Adierazitako guztiak aintzat harturik, Udalbatzak, ahobatez

EZESTEN du **JESUS MARIA GOROSTIDI ASTIGARRAGA jaunak** aurkeztutako alegazioa eta era berean Lardi Auzoko Zolaketa proiektuari **behin betiko onespina** ematen dio.

SEIGARREN PUNTUA:

ORDENADOREEN EROSKETARAKO AZTERKETA ETA BERE KASUAN ADJUDIKAZIOA

Udaletxeko bulegoetan erabiltzen diren bi ordenagailuak aldatu eta berritzeko beharra dagoenez, ekipo berri batzuetaz hornitzeko kontratua gauzatu nahi du Udal honek. Kontratuaren zenbatekoa ikusirik, bidezkotzat jotzen dugu haren kontratazioa prozedura negoziatuaren bidez egitea, Herri Administrazioen Kontratuen Legeak 182.artikuluari adierazi bezala. Horrela, kontratuaren xedeko lanak egiteko gai diren hiru lizitatzailen eskaintzak jaso ondoren zerbitzu teknikoei eman zaizkie, ohiko irizpideen arabera eskaintza horiek aztertu eta baloratu ditzaten.

Eskaintzak aztertu ondoren, LANCAD, C.B enpresaren alde esleitzeko proposamena egin dute.

Ondorioz, Udalbatzak, aho-batez, **EBAZTEN DU:**

1.- Udaletxerako bi ordenagailuen hornidura kontratu espedientea onartzea. Aurrekontua 2.238€koa izango da, BEZa barne eta ordainketa aurrekontuko 1.0000.626.121.00.01.2006 kontusailaren kargura egingo da.

2.- Kontratua LANCAD, C.B enpresari esleitzea aipaturiko zenbateko horretan. Lanak egiteko epea hilabete batekoa izango da.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
2006 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Udalbatza osatzen duten zazpi korporazio kideetatik bertaratutako seiek eta beraiek gehiengo absolutu legala osatzen dutelarik, aho batez, 2006 urterako ondorengo tasa eta zergen tarifak aldatzeko erabakia hartu dute, aldatu ez diren tasa eta zergen zenbatekoa ere aipatzen delarik:

1.- ZERGA:

1.1.ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.

1.1.1.LANDA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA- 0,60%

1.1.2 HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA-

a). HIRITARRA: 0,18%

b). INDUSTRIALA: 0,24%

1.2. TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Potentzia eta ibilgailu mota.

A) Ibilgailuak:

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	25,77
9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	58,86
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	112,95
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	133,93
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	172,2
20 zaldi fiskaletik gorakoak	207,69

B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak	142,00
21-50 plaza bitartekoak	202,94
50 plaza baino gehiagokoak	252,416

C) Kamioiak:

1.000 Kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	72,26
1.000- 2.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	142,00
2.999- 9.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	202,94
9.999 Kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	252,416

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	30,06
16-25 zaldi fiskalera bitartekoak	47,49
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	142,00

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak:

750kg-tik 1.000kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	30,06
1.000- 2.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	47,49
2.999 Kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak.	142,00

F) Beste ibilgailuak:

Ziklomotoreak	7,70
125 z.k. bitarteko motozikletak	7,70
125-250 z.k. ko motozikletak	13,01
250-500 z.k. ko motozikletak	26,00
500- 1.000 z.k. ko motozikletak	51,94
1.000 z.k. baino gehiagoko motozikletak	104,68

1.3. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA 1,80%

1.4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA:

Ondoren aipatzen diren tasa eta hobariak onartu dira:

- 1.- Industriak eta komertzioen (sagardotegiak barne) kasuan: %4.
- 2.- Etxebizitzak:%3.
- 3.- Laborantza ustiapenera lotuta dauden landatar etxebizitzak: %2.
- 4.- Laborantza ustiapenerako beharrezkoak diren instalazioak: %95eko hobaria izango dute.
- 5.- Eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzeko obratan %95eko hobaria onartuko da. Beti ere, Ordenantza fiskal hau indarrean sartzen denean eraikita dauden etxebizitzatan egiten diren instalazio hauen obregan izango da aplikagarri hobaria eta ez obra berri edo eraikin berriengan.
- 6.- %90 eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean. Beti ere, Ordenantza fiskal hau indarrean sartzen

denean eraikita dauden etxebizitzatan egiten diren instalazio hauen obregan izango da aplikagarri hoberia eta ez obra berri edo eraikin berriengan.

Gainera, kitapena egiteko gutxienezko kantitatea 6€tako izango da.

1.5. HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

- a). 1 etik 5 urtera: 2,6
- b). 10 urte arte: 2,4
- d). 15 urte arte: 2,5
- e). 20 urte arte: 2,6

Karga-tipoa: %10,00

2.- TASAK.

2.1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASA

2.1.1.- GASAREN KONESIOA 1.000

2.1.2.- UR HORNIDURA ZERBITZUA.

A) Etxe Zerbitzua:

- 20 m ³ raino, hiruhilabeteko	4,52
- 20 tik 80 m ³ raino, m ³ gatik	0,34
- 80 m ³ baino gehiago, m ³ gatik	0,48
- Kontagailuaren akura, hiruhilabeteko	1,85
- Ur hartzeagatik	74,22

B) Industri Zerbitzua:

- 20 m ³ raino, hiruhilabeteko	10,22
- 20 tik 100 m ³ raino, m ³ gatik	0,90
- 100 m ³ baino gehiago, m ³ gatik	0,91
- Kontagailuaren akura, hiruhilabeteko	2,25
- Ur hartzeagatik	121,00

C).Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren azpiegituraren finantzaketa:

-Etxeko baliatzaileek	0,153
-Etxeko ez diren baliatzaileek	0,296

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak.

Gutxieneko kontsumoaren gaineko hobaria. Baldin eta famili unitatearen diru-arrera gordinak 2006 ekitaldian ondorengo eremuetan egon baldin badira:

Famili kideak	< gutxienezko profesioarteko soldata (g.p.s)	g.p.s.< %10	g.p.s.< %20	g.p.s. < %30	g.p.s < %40	g.p.s. < %50	g.p.s < %60
1-2	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-	-
3	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-
4	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-
5	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %
6	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %
7	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %
8 +	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %

Bete beharreko gainerako baldintzak ondorengoak dira:

- Famili unitateko kide guztiak Adunako udalerrian erroldatuta egotea.
- Famili unitateko inork Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea .

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Famili unitateko kide guztien NAN fotokopia.
- Famili unitatea osatzen duen kide bakoitzaren erroldatze ziurtagiria.
- Famili unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Famili unitatearen kide bakoitzak dituen ondasun higiezinei buruz Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako ziurtagiria.
- Famili unitateko kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Azken errenta aitortpenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria. Azken ekitaldi ekonomikoan izandako diru-sarrerak justifikatzen dituzten agiriak.

2.1.2.- ESTOLDERIA ETA ZABOR BILKETA ZERBITZUA.

- Etxebizitzak, urtean	30,5
- Taberna, komertzioak eta enpresak, urtean	130,00

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak.

Gutxieneko kontsumoaren gaineko hobaria. Baldin eta famili unitatearen dirusarrera gordinak 2006 ekitaldian ondorengo eremuetan egon baldin badira:

Famili kideak	< gutxienezko profesioarte ko soldata (g.p.s)	g.p.s.< %10	g.p.s.< %20	g.p.s. < %30	g.p.s < %40	g.p.s. < %50	g.p.s < %60
1-2	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-	-
3	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-
4	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-
5	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %
6	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %
7	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %
8 +	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %

Bete beharreko gainerako baldintzak ondorengoak dira:

- Famili unitateko kide guztiak Adunako udalerrian erroldatuta egotea.
- Famili unitateko inork Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Famili unitateko kide guztien NAN fotokopia.
- Famili unitatea osatzen duen kide bakoitzaren erroldatze ziurtagiria.
- Famili unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Famili unitatearen kide bakoitzak dituen ondasun higiezinei buruz Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako ziurtagiria.
- Famili unitateko kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Azken errenta aitopenenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria. Azken ekitaldi ekonomikoan izandako dirusarrerak justifikatzen dituzten agiriak.

2.1.3.- ESTABLEZIMENDUA IREKITZEAGATIKO TASA:

- Etxeetan egingo den gas instalazioa-	170
- Komertzio, biltegi eta tabernetara egingo den gas instalazioa-	170
- Komertzio, Taberna, biltegi ez indus 100m ² tik behera	390
- Jatetxeak eta Sagardotegiak	550
- Industriak, biltegiak eta supermerkatuak	
- 500 m ² rainoko azalera	750
- 501tik 1.000 m ² ra	1125
- 1.001 tik 5.000 m ² ra	1700
- 5.000 m ² gorakoak	2350

2.1.4.- LURZORUARI ETA HIRI ANTOLAKETARI BURUZKO LEGEAK EXIGITUTAKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEA.

- Zatikako Planak, Plan Bereziak, Hiriztatze Proiektuak eta Zehaztasun Azterketak bideratzea	2.300
- Beste hirigintza ekitaldiak	1.400
- Konpentsazio proiektuak	260
- Errepartzelazio proiektuak	260
- Hirigintza galderak	20
- Segregazio baimenak	50
- Lehen okupazioko baimenak	50

2.2.UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK TASA.

2.2.1.- LINEA ELEKTRIKOAK HODIAK ETA GALERIAK ARGINDAR, UR, GAS EDO BESTELAKO ISURKINAK GARRAIATZEKO, BAI ETA LINEEN ZUTOINAK, KABLEAK, PALOMILA, AMARRATZE, BANAKETA ETA ERREGISTRO KAXAK, TRANSFORMADOREAK, ERRAILAK, BASKULAK, SALMENTA AUTOMATIKORAKO APARAILUAK EDOTA KALEETAN EDO UDALAREN HERRI JABARIKO BESTELAKO TERRENOETAN EZARTZEN DIREN ANTZEKO ELEMENTUAK.

Ateria osoari edo horren zati garrantzitsu bati dagozkion hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen lur, lurrazpiko edo lurgainaren erabilera pribatibo edo

aprobetxamendu bereziengatiko tasa aipatu enpresek udal barrutian urtean eskuratzen dituen fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

2.2.2 FRONTIOIA ERABILTZEAGATIKO TASA

Udal pilotalekuaren argiagatiko tasa 3€ fixako ezartzen da

Bestalde, aipaturiko zerga eta tasen Ordenantzen testu bateratuak ere onartzen dira.

ZAZPIGARREN PUNTUA ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUAK AURKEZTURIKO "TOLOSALDEKO UR HORNIDURA 5.FASEA ADUNAKO ADARRAREN 1.PROIEKTU ALDATUKO" OBREN 6.ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamenduarekin sinatutako lankidetza hitzarmena sinatu ondoren, Udal Batzar honek, aho-batez, aipatutako Departamenduak igorritako Tolosaldeko ur hornidura 5.fasea: Adunako adarra proiektuaren 7.ziurtagiria onartu du, ziurtagiri honen zenbatekoa 1.797,78€takoa delarik.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.